MUBIL FUNDAZIOAREN PRENTSA BULEGO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEARI DAGOKION PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

- Kontratu mota: ZERBITZUAK
- Prozedura mota: IREKIA
- Espediente zk.: MUBIL2023-04
- Xedea: MUBIL FUNDAZIOAREN PRENTSA BULEGOAREN ZERBITZUA KONTRATATZEA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Lizitazio honek barne hartzen du prentsa-kabinetearen zerbitzuak kontratatzea, Brandbook-en helburuekin eta MUBIL Fundazioaren (aurrerantzean, "MUBIL" edo "Fundazioa") helburu estrategikoak betetzera bideratutako urtero definitutako Komunikazio Planarekin lotuta.

2. MUBIL FUNDAZIOAREN TESTUINGURUA ETA ESTRATEGIA

2.1. Aurrekariak eta testuinguruan jartzea

MUBIL "Etorkizuna Eraikiz" proiektuaren esparruan sortutako Fundazioa da, Mugikortasun Adimentsu eta Jasangarriaren Polo gisa. Gipuzkoa eta Euskadi mugikortasun adimentsu eta jasangarrirako esperimentazio- eta garapen-polo bihurtzea du helburu nagusia.

2.2. MUBILen helburu nagusia eta helburu espezifikoak

MUBIL Fundazioaren (Mugikortasun Adimentsu eta Jasangarriaren Poloa) helburu nagusia da Gipuzkoa eta Euskadi mugikortasun adimentsu eta jasangarriko esperimentazio- eta garapen-polo bihurtzea.

MUBILen jarduerak honako ardatz nagusi hauek ditu:

- Lurraldean ekosistema bat eraikitzea, nazioartean mugikortasun adimentsu eta jasangarrirako garrantzitsua izango dena.
- Gipuzkoa eta Euskadi mugikortasun jasangarri eta adimendunaren arloko esperimentuetarako eta garapenerako gune bihurtzea.
- Gaitasun zientifiko-teknologikoak eta industrialak bateratzea, jarduera ekonomiko eta teknologiko berria sortzeko.
- Ezagutza transferitzeko eta negozio nitxo berriak sortzeko mekanismoak bultzatzea, enpresa sare berri bat sortu, dagoena eraldatu eta enplegu berriak sortzeko.

- Eragile nagusien jarduerak nazioartean jarduteko moduko kooperazio sare publiko-pribatu batean integratzea.

Hala ere, lurraldeko enpresen testuingurua eta egoera dela eta, MUBILek, finkatutako helburuak garatzeaz gain, ahaleginak egin behar ditu mugikortasun adimendun eta jasangarriak ekonomiarako eta energia- eta ingurumen-trantsiziorako duen garrantziaren berri zabaltzeko.

Kontua da informazioa, prestakuntza, zerbitzua ematea, ezagutza ekartzea eta lurraldeko eragile guztien artean (enpresak, herritarrak, unibertsitateak, prestakuntza zentroak, erakundeak...) sortzea, ingurumenaren ikuspuntutik jasangarriagoa den ekonomiarako trantsizioa egiten laguntzeko.

Testuinguru honetan, hain zuzen, esku hartzen du MUBILeko komunikazio taldeak, balio kateko maila guztiak aipatu eta kontuan hartuko dituen Brandbook eta Komunikazio Plana planteatu eta garatzeko. Izan ere, planak, MUBIL Fundazioaren jardueraren xede den enpresa eta industria eremuez gain, erakundeak, hezkuntza eta ikerketaren arloak eta gizartea izango ditu kontuan.

Brandbook eta Komunikazio Plan horren garapenak bultzatu beharko du MUBIL Fundazioa mugikortasun adimendun eta jasangarriaren arloko erreferentzia bihurtzera lurraldean eta nazioartean. Gure arrakasta batez ere industria sareari eta, oro har, gizarteari egingo diogun ekarpenaren balio erantsiaren arabera neurtuko da: Enpresen trantsizioa eta birdefinitze prozesua eta herritarren kontzientziazioa optimizatzea.

3. PROIEKTUAREN HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA NORAINOKOA

Dokumentu honen lehenengo puntuan aipatutako kontratazioaren bidez, **lortu nahi da** definitutako Komunikazio Planaren ezarpenari lotuta dagoen **Prentsa Bulegoaren zerbitzua**, helburu estrategikoak betetzeari begira. Azken helburua hauxe da: komunikabide ekintzen ondorioz, MUBIL Fundazioa posizionatzea eta mugikortasun adimendun eta jasangarriaren estrategia ezartzea.

Gainera, MUBILek Brandbook bat du, eta bertan jasotzen dira irudiaren eta jardueraren posizionamendua (balio-proposamena), edozein komunikazio-ekintzatarako kontsulta-dokumentuetako bat izan behar duena.

Aipatutako zerbitzuak honako behar hauei erantzun beharko die:

Prentsa Plana eta Prentsa Bulegoa diseinatu eta garatzea

Prentsa plana eta Prentsa Bulegoa diseinatu eta ezartzeko lanek barnean hartuko dituzte, betiere MUBILen Brandbook eta Komunikazio Planarekin bat etorriz, planteatutako helburu eta ekintzak burutzeko beharrezkotzat joko diren mezuak konfiguratzea eta komunikabideak dinamizatzea. Planteatutako estrategiak burutzeko beharrezkotzat jotzen diren prentsa baliabide guztiak prestatuko dira.

Prentsa Bulegoaren ezarpena eta jarduera MUBILen Brandbook eta Komunikazio Planari lotuta eta komunikazio planaren garatzailearekin etengabe koordinatuta egon beharko da, jarduera horren osagarri izanik.

Komunikazio Planean zehaztutako komunikazio helburuak, Prentsa Planari eta Prentsa Bulegoari dagokienez, honako hauek izango dira:

Prentsa Bulegoaren jarduerak

a) **Prentsa Bulegoa sortzea.** Bulegoak harreman zuzena izango du MUBILeko zuzendaritzarekin eta komunikazio arduradunarekin (adjudikaziodun independentea)[1]. Lizitatzaileak pertsona bat izendatu beharko du, publiko desberdinekiko elkarrizketa kudeatzeko. Pertsona horrek komunikatzeko bideak irekiko ditu xede publiko desberdinen eta hedabideen artean, eta, une guztietan, zerbitzuaren arduradunaren (lizitatzaileak finkatuaren) laguntza eta gainbegirada izango du.

b) **Beti harremanetan eta koordinatuta egotea** komunikazio arduradunarekin (adjudikaziodun independentea). Prentsa Bulegoak egindako lanak komunikazio arduradunari azaldu beharko dizkio, lan horiek Brandbookarekin eta MUBILen komunikazio planarekin bat etortzea egiaztatzeko.

c) Komunikazioaren inguruko **aholkularitza eta planifikazioa**.
   - Komunikazioari eta Harreman Publikoei buruzko kontsulta zerbitzua. Komunikaziorako eta hedabideetarako irizpide orokorra ezartzea, tokiko, estatuko zein nazioarteko mailan.
   - Komunikazio gakoak identifikatzea.
   - Akzioak askotariko interes taldeen arabera egokitzea.
   - Komunikaziorako hileko egutegi bat sortzea, MUBIL Fundazioaren laguntzaz.
   - Aginte koadroa sortzea eta adierazleen eta KPIen etengabeko ebaluazioa egitea.

d) MUBILen ekintza eta ekitaldien proposamenak baloratzea.

e) Webean argitaratzeko albisteak idaztea.

f) **Prentsan** eta bestelako komunikabideetan jartzeko **komunikatuak** idaztea, argitaratzea eta jarraipena egitea (sare sozialak eta informazio-webgune espezializatuak barne).
   - Komunikabideekiko, kazetariekiko eta influencer espezializatuekiko harremanak.
   - MUBILek komunikabideetan duen presentzia ohiko bihurtzea. Egutegia ezartzea.
   - **MUBIL posizionatzea,** mugikortasun berriaren gaian erreferente izan dadin hedabideentzat (lehentasunez lurraldeko hedabideentzat); mugikortasun adimendun eta jasangarriari buruzko informazioa lortu edota mugikortasun adimendun eta jasangarriari buruzko erreportajeak eta elkarrizketak egin behar izanez gero, harremanetarako erakundea izatea.
   - **Komunikatuak, prentsa oharrak, erreportajeak**: kasuan-kasuan beharrezkoak diren mezuak, prentsa oharrak prestatu eta idatziko, bideoak grabatu eta irudiak hartuko ditu.
     - Prentsa oharrak idaztea.
     - Prentsa deialdiak eta prentsa oharrak hedabideetara bidaltzea, jaso izana egiaztatzea, harreman pertsonalizatua kazetariekin.
   - Iritzi artikuluen eta bestelako argitalpenen zirriborroak idaztea.
   - **Elkarrizketak, prentsaurrekoak, bisitak eta bestelako komunikazio ekitaldiak**: elkarrizketak eta topaketak antolatu ditu, baita informatzaileekin eta hedabideekin egin beharreko bisitak eta aurkezpenak ere.
   - **Hedabide** orokorrek zein espezializatuek **egiten dituzten informazio eskaeren bitartekoa eta bideratzailea**.
   - Prentsaurrekoetan eta ekitaldietan esku hartzeko **diskurtsoak eta gidoiak idaztea.**

[1] MUBIL Fundazioaren komunikazio-arduraduna Breaking Molds SL da, eta MUBIL2022-05 kontratazio-espedientearen bidez adjudikatu zitzaion 2023ko irailera arte.

- **Ekitaldiak**: MUBILen jardueraren inguruan antolatzen diren ekitaldi guztiei lotutako komunikazioa koordinatuko du. Ekitaldietako prentsa planak diseinatu, ezarri eta ebaluatzea. Ekitaldien adibideak: MUBIL Mobility Awards, MUBIL Mobility Expo (lehengo Go Mobility by Mubil), inpaktu handiko eta txikiagoko gainerako ekitaldiak.
  Prentsa Bulegoak horrelako ekitaldietan egin beharko dituen lanak, beste batzuk alde batera utzi gabe, honako hauek izango dira:
  a. Prentsan zabalkundea egiteko plana.
  b. Prentsa oharrak idatzi eta bidaltzea.
  c. Prentsaurrekoak antolatu eta koordinatzea.
  d. Iragarkien diseinua eta zabalkundea. Piezak prestatzeari eta diseinuari dagokienez, MUBILeko komunikazio arduradunak egin ahal izango du (baldintza agiri honekin lotuta ez dagoen adjudikaziodun independenteak).
  e. Ebentoetako esku hartzeen eta aurkezpenen diskurtsoak eta gidoiak idaztea.
  f. Hedabideekin harremanetan jartzea, prentsan argitaratzekoak proposatu eta koordinatzea: elkarrizketak, albisteak eta abar.

- **Jarraipen** sistematikoa egingo du honako hauei dagokienez: MUBIL jarduerak hedabideetan duen presentzia; horri lotutako albiste garrantzitsuak; komunikazio jarduera espezifikoei lotutako *clipping*-ak eta prentsa txostenak; eta aldian behingo jarraipen txostenak (aldizkakotasuna adjudikaziodunak zehaztuko du). Hedabideetara egindako bidalketa bakoitzaren, ekitaldi edo ekintza bakoitzaren jarraipenerako txosten kuantitatiboak egitea. Bi klipping-mota eskatzen dira:
  - Prentsako eta komunikabideetako klippinga (informazio-webguneak barne)
  - Sare sozialen clippinga.
- Gure intereseko hedabideetako eta kazetaria/influencerren kontaktuak biltzen dituzten **datu baseak sortu eta eguneratzea**.

g) **Emaitzak hilean behin aztertu eta berrikustea.** Aldizka entregatu behar diren klipping-ak dira, MUBILekin adostutako adierazle-eremuekin, formatu editagarrian (adibidez, Excel) eta historia-azterketak egiteko aukera ematen duten datuekin. Emaitzak aztertuta ekintzak hobetzeko proposamenak jasotzea espero da.

h) **Krisi kudeaketa**: espero ez diren eta MUBILen izen ona edota bere langileen profesionaltasuna kalte dezaketen egoerak bideratzea. Krisi plana abian jartzea eta aplikatzea, erakunde eskudunekin batera.

Proposatzen diren ekintza guztien kostua barnean dagoela joko da, publizitate mezuak eta argitalpenaren edo zabalkundearen kostu espezifikoak dakartzaten beste ekintza batzuk izan ezik. MUBILek ulertuko du adjudikaziodunak aurkeztutako aurrekontuan sartuta daudela eskaintzan aipatzen diren ekintza guztiak, kontrakorik adierazi ezean; ekintza horiek burutzeko kostu gehigarriak ez dira onartuko.

Hala badagokio, hautatuko den proposamenari dagokionez, MUBILek egoki deritzen aldeak adierazi ahal izango ditu, kontratuaren indarraldi osoan zehar, proposamena MUBILek une bakoitzean egokitzat jotzen dituen behar eta berezitasunetara egokitzeko; adjudikaziodunak MUBILen iradokizun eta/edo proiektuari egindako ekarpen guztiak aintzat hartu beharko ditu.

Adjudikaziodunak bere gain hartuko du MUBILen Prentsa Bulegoaren zerbitzua eraginkortasunez emateko ardura.

Enpresa adjudikaziodunak bileren antolaketa eta koordinazio metodologia diseinatuko du, baita hedabideetan, komunikabide digitaletan eta abarretan inpaktua kontrolatzeko eta jarraipena egiteko behar den dokumentazioa ere.

MUBILek beretzat gordetzen du lan horietarako noizean behin beste enpresa batzuk kontratatzeko eskumena, proiektuen ezaugarriak kontuan hartuta beharrezkoa denean.

Enpresa adjudikaziodunak kontratua egikaritzean erabiliko diren produktu eta material guztien kopia entregatu beharko dio MUBIL Fundazioari, hark esandako euskarri eta formatuetan. Aurkeztuko diren material guztiak zuzenean editatzeko eta MUBIL Fundazioak egokitu eta ustiatzeko moduan egongo dira.

Finkatutako helburuak lortzeko, lizitatzaileak **prentsa plan** bat finkatu beharko du, xede publiko desberdinei zuzendutakoa; halaber, **adierazle panel bat** (KPI) definitu beharko du, prentsa ekintzen bidez eragindako inpaktua neurtu eta ekintza desberdinen jarraipena egin ahal izateko.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 308.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, kontratatutako lanetik eratorritako jabetza intelektualeko eta/edo industrialeko eskubideak MUBIL Fundazioari lagako zaizkio. MUBIL Fundazioak ustiapen eskubideak modu esklusiboan erabili ahal izango ditu, forma guztietan, bereziki, erreprodukzio-, banaketa-, jendaurreko jakinarazpen- eta eraldaketa-eskubideak; horiek ezin izango dira erabili MUBIL Fundazioaren baimenik gabe, Jabetza intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusitako kasuetan izan ezik, gaiaren inguruko indarreko lege-xedapenak arautu, argitu eta bateratuta, eta aplikatzekoa den beste edozein legedi kontuan hartuta. Hirugarrenen eduki, elementu edo materialak izanez gero, horien erabilera eta ustiapen baketsua laga behar dizkio adjudikaziodunak MUBIL Fundazioari.

4. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE TEKNIKOAK

Azaldutako lana behar bezala egiteko, enpresa adjudikaziodunak proiektua gauzatzeko lantalde egonkor eta diziplina anitzekoa adskribatzeko konpromisoa hartu beharko du; lantaldea gutxienez 2 profesionalek osatuko dute, MUBILen zuzendaritzapean eta komunikazio arduradunak (adjudikaziodun independentea) koordinatuta, lantaldeko kideen artean ataza partekatu batzuk eta berariazko beste batzuk banatuta, proiektua abiarazteari eta pixkanaka garatzeari heltzeko.

Lantaldean, Administrazio Klausula Berezien Agiriak baliabideen nahitaezko esleipena dela eta ezarritako baldintzak betetzen dituzten bi profesional (gutxienez) egongo dira.

Bulegoko arduraduna, gainera, MUBIL Fundazioarekin hitz egiteaz arduratuko da. Arduradun horrek urteko egun guztietan –jaialdiak eta asteburu batzuk barne– erantzun beharko die kontratatutako beharrei, eta beti egongo da aukera berarekin harremanetan jartzeko. Baldintza horiek ezinbestez bete behar dira kontratua egikaritu bitartean, zerbitzuak barnean hartzen baitu krisi kabinetea, non fundazioarentzat isilpekoa den informazioa erabil daitekeen; informazio hori ezin zaio erakunde adjudikazioduneko edozein langileri jakinarazi.

Ezinbestekoa da zerbitzua neurri batean *in situ* ematea. Arduradunak aurrez aurre parte hartu beharko du ekitaldietan, MUBILek hala eskatzen badio. Gainera, gutxienez aurrez aurreko jarraipen-bilera bat antolatu behar da 3 hilean behin.

Dokumentu eta jarduera guztiak **hiru hizkuntzatan egingo dira, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, fundazioari kostu gehiagorik sortu gabe.** Proiektu, jarduera eta ekitaldi jakin batzuetan, onar daiteke euskara eta gaztelania bakarrik erabiltzea.

Halaber, hizkuntza, irudiak eta edukiak modu ez-sexistan eta ez-androzentrikoan erabiliko direla bermatuko duten komunikazio politikak aplikatuko dira.

MUBIL Fundazioak edozein unetan –kontratua gauzatzen hasi aurretik edo gauzatu bitartean– errefusatu ahal izango ditu enpresak jarritako baliabide guztiak, ezarritako baldintzak betetzen ez dituztela irizten badu.

5. METODOLOGIA ETA LAN PLANA

Enpresa lizitatzaileak metodologia, lan plana eta MUBIL Fundazioaren Brandbook-a eta Komunikazio Plana garatu eta betetzeko Prentsa Bulegoa ezartzeko ekintzak barnean hartzen dituen proposamena prestatu beharko du.

MUBIL Fundazioaren Komunikazio Planak hainbat ekintza plan jasotzen ditu; ekintza plan horiek komunikazio estrategia garatzeko jarduerak eta komunikazio eta prentsa bulegoa ezartzeko burutu behar diren jarduerak biltzen dituzte. **Komunikazio Planean zehaztutako ekintzak orientatzeko baino ez dira, eta aldatu ahal izango dira, zerbitzua ahalik eta hoberen emateko egokitzat jotzen bada. Hala ere, horretarako, MUBIL Fundazioak izendatutako kontratuaren arduradunak baimena eman beharko du aldez aurretik.**

MUBIL Fundazioak, lanen garapena eta jarraipena errazteko, zerbitzuaren beharren arabera, enpresa adjudikaziodunari eskatu ahal izango dio ezinbestekotzat joko dituen dokumentu guztiak aurkez ditzan eta zerbitzua behar bezala garatzeko beharrezkotzat joko diren lan- edo informazio-bilera guztietan parte har dezan; bilera horiek aurrez aurre eta/edo era telematikoan egin ahal izango dira, MUBILek erabakitako moduan.

MUBIL Fundazioko Proiektu kudeatzailea

Amaia Azpiazu Anduaga